

bai

ziurtagiridunen
aldizkaria

Alor sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiten ari direnei aitortza

14. alea
2014ko urria



Enpresarean 2014
Azokako egitaraua, barruan.
12. orr.



Rober Gutiérrez [Zuzendaria]
@robergutierrez

Lan eta bizi euskaraz

Ziurtagiriaren Elkartek Euskal Herriko alor sozioekonomikoarentzat osagai ezinbestekoa izan nahi du. Dakizuen bezala, arlo sozioekonomikoaren euskalduntzean eragitea da gure helburua, euskaraz lan eta bizi ahal izateko dauden espazioak identifikatzea, babestea eta gehiagotara zabaltzea, gure egunerokoan eragina duten espazio guztietan euskarari leku egitea estrategikoa baita. Berebiziko garrantzia du.

Eremu horretan eragiteari begirako proiektuak ari gara garatzen. Bai Euskarari Ziurtagiriarekin batera, Enpresarean edo Lansarean bezalako ekimenak ari gara lideratzen. Alor sozioekonomikoko entitateen eta pertsonen arteko elkarlana ari gara sustatzen, euskarak dituen eremuak babesteko eta eremu berriak bete ditzan.

Garai berri baten aurrean gaudela diote adituek eta, Ziurtagiriaren Elkartean ere, horretara egokitzeko ahalegina ari gara burutzen. Bide luzea egin dugu gaur arte eta erronka handiak ditugu aurrera begira. Pausoak ematen ari gara eta horrela segituko dugu, gogo handiz. Konpromisoa berretsi nahi dugu.

Gure elkartek hausnarketa sakona egin du etorkizuna irudikatzeko. Non egon nahi dugun badakigu. Bidea irudikatu dugu eta orain zuen laguntza eta lankidetzaren behar ditugu, euskal gizartearen babesa behar dugu, bereziki arlo sozioekonomikoan diharduzuen eta eragiten duzuen aktore nagusiena. Harreman sarea behar bezala landu eta ehundu behar dugu, elkarlanean arituz gero askoz eraginkorragoak izango baikara.

Alor sozioekonomikoaren espazio guztietan euskaraz aritzeko proiektuak bideratzen segituko dugu. Zuekin batera. Lan eta bizi euskaraz.

Kolaborazioa 03

Kike Amonarriz, saria jaso ondorengo hausnarketak

Elkarrizketak 04

Kike Amonarriz,
Bai Euskarari Laguna saria

Petra Elser, Banaiz Bagara.
Bai Euskarari saria

Kepa Mendia, Mendia Optika.
Bai Euskarari saria

Sariak 08

Bai Euskarari Sarien
banaketa-ekitaldiko kronika

Ziurtagiriaren elkarteko berriak 10

Irudi eta webgune berriak

Enpresarean 12

Enpresarean azokaren egitaraua

Berriak 14

Hitzarmenak erakundeekin

Argitaratzailea: Ziurtagiriaren Elkartea www.baieuskarari.eus · Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain t. 943592148
1 Arsenal Plaza - 64100 Baiona t. 0559255041 · Luzarra 10, 2-1 - 48014 Bilbo t. 902430026
Pedro Asua, 27 behe - 01008 Gasteiz t. 945215196 · Martzelo Zelaia, 75 U3 eraikina, 13. bulegoa 31014 Iruñea t. 902430026

Zuzendaria: Rober Gutiérrez · Kudeaketa eta erredakzio-taldea: Ziurtagiriaren Elkartea eta Arteman Komunikazioa
Diseinua eta maketazioa: dalvez · Argazkiak: Ziurtagiriaren Elkartea eta Arteman Komunikazioa
Inprimatzailea: Leitzaran · Banaketa: Ziurtagiriaren Elkartea · Lege gordailua: SS-497-2010

 @baieuskarari

 baieuskarariziurtagiria

www.baieuskarari.eus



TALLERES
MITXELENA, S.COOP.

Ezlaigo poligonoa, 21 · Hernani, Gipuzkoa
Tel.: 943 552 512 / 552 516 · Fax: 943 552 816
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com



Kike
Amonarriz

**Aukera historiko
baten aurrean
gaude eta ezin
dugu alferrik
galtzen utzi.
Horretarako,
ordea, euskaltzale
guztiok norabide
berean jokatu
behar dugu**

Saria jaso ondorengo hausnarketak

Bai Euskarari Laguna Saria jasotzean lotsa sentitu nuen, beti pentsatu izan dudalako gure lanbidean aurpegia erakustea egokitu zaigunok, dagokiguna baino eskertza gehiago jasotzen dugula. Horregatik sari hau bada lankide izan ditudanena ere, eta bereziki, *Tribuaren Berbak* saiokoena. Inor ez baita iristen inora bakarrik. Baina bidean jaso daitezkeen laguntzen artean, badira batzuk ezinbestekoak. Nik ere, asko zor diet, txikitatik euskararekiko maitasuna transmititu didaten gurasoei, batez ere, euskara Berrobiko kalean ikasi zuen amari, eta beti laguntza kritikoa eta pazientzia historikoa eskaini didaten etxekoei.

Baina sari honek, batez ere, poz handia eta emozioa eragin dizkit, uste dudalako urte haue-tako lanaz gain, beronen azpian dagoen izpiritua ere saritu dela: euskararen aldeko konpromisoa eta lana modu baikorrean bideratzea; euskara, pozerako eta jolaserako tresna gisa ikustea; kon-frontaziorako armatzat baino, elkarbizitzarako oi-narritzat hartzea; euskara denona dela eta gure tribuan kolore guztietako jendearentzat lekua dagoela sinistea eta euskaltzale guztiok eroso sentituko garen espazioak sortzen saiatzea; biktismo eta ezkortasun guztien gainetik eta ozto-po eta eraso guztien azpitik, hizkuntzaren aldeko jarrera irmo bezain zabala mantentzea, kezkatua bezain itxaropentsua.

Urteotan euskararen alde gogoz ari den jende ugari ezagutu dut, nekeak neke, aurrera egiteko ilusioa mantentzen duena. Egitasmo interesgarri eta erakargarriak, baita tribukide ekintzaile asko. Niretzat ohorea izan da Saria horietako birekin jasotzea: Kepa Mendia eta Petra Elser.

Gainera, sinistuta nago, une hau oso garrantzitsu dela euskararen normalizazioari begira. Horregatik uste dut, euskalgintza sozialaren eta instituzionalaren arteko elkarlana sakontzeko unea dela. Euskararen aldeko akordio sozio-politiko zabalen unea. Hizkuntza politikak areagotzekoa. Gizartean eta lan munduan erabileraren aldeko dinamikak indartzeko momentua. Gure diskurtsoak eta praktikak egokitu eta zabaltzeko unea. Euskararen aldeko motibazio sozialak indartu eta urrun dagoen jende asko euskarara erakartzekoa. Euskarak bere lurralde osoan behar duen babes politiko-legala bermatzeko garaia.

Aukera historiko baten aurrean gaude eta ezin dugu alferrik galtzen utzi. Horretarako, ordea, euskaltzale guztiok norabide berean jokatu behar dugu, hizkuntzaren alde aktibatuta, beti gogoratuz gehiago dela batzen gaituena, banatzen gaituena baino.

Eta hau guztia euskaraz gustura, elkarrekin, modu irekian eta alai bizi nahi dugulako!

Kike Amonarriz (Tribuaren Berbak)

“Zer falta den, zerk egin duen huts, nora ez garen heldu ezin dugu ahaztu, baina nabarmendu eta ospatu behar dugu lortutakoa”

Kike Amonarriz tolosarrak Euskal Filologia ikasi zuen, baina Euskalgintzaren soziolinguistikan dihardu buru-belarri aspalditik. Astero gure etxe gehienetara sartzen da eta, berarekin batera, euskararen hainbat aspektu telebistan aurkezten dituen saioei esker; azkena *Tribuaren Berbak* izenekoa.

Zorionak! Euskara etxeetara modu positibo eta naturalean sartzea lortu duzu.

Nire betiko obsesioa izan da. Aspaldi Lluís Vicent Aracil soziolinguistari entzun nion euskal komunitate linguistikoa, emigratzea mereziko lukeen lekua izatea lortu behar genuela. Hori izan da beti nire laneko planteamendua. Izan ditzakegu erasoak, zailtasunak, behar denean irakurketa negatiboa egin behar da, baina egoeraren aurreko jarrera beti izan behar da positiboa.

Zure lanean zer da gehien estimatzen duzuna? Eta harritzen zaituen?

Lan-giroa. Lana maitasunez egiten baduzu eta lantaldea inplikaturik badago, jendearengana errazago hel zaitezke. Ikusleekin eta parte-hartzaileekin dugun harremana da sari onena. Eta harritu? Carlos Cid madrildar petoak euskara nola eta zergatik ikasi duen ja-

kitea; Eskoriatzako euskara ikasi duen Cubako Yuli ezagutzea; Iparralden zein La Puebla de Labarkan euskara berreskuratzeko egindako lana. Eta *Tribuaren Berbak* izaten ari den harrera itzela.

Nolakoa da euskararen egoera arlo sozioekonomikoan?

Arlo hau ezinbestekoa da, baina hastapenetan gaude. Ez badugu bermatzen ikasketak euskaraz egin dituztenek lana euskaraz egitea, kontrako efektua gerta daiteke. Gainera, lan mundua bilaka daiteke bestela euskara erabili ezin izaten dutenentzat aukera.

Zer deritzozu Bai Euskarari Ziurtagiriak arlo sozioekonomikoan egiten duen lana?

Oso garrantzitsua da euskararen erabilera bultzatu eta aurrera egin nahi dutenak aholkatu eta lagunduko duten erakundeak egotea. Ziurtagiriak helburuak gauzatzeko mugarri aproposak dira.



Leitzaran Grafikor, S.L.
Martín Ugola Kulture Parkea
20140 Andoain (Gipuzkoa)
tel: 943 103510 - fax: 943 593067



- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Inprimokiak



- Aurreinprimaketa
- Inprimaketa
- Koadernaketa
- Prozesu integrala



“Diskurtso aglutinatzaileagoak behar ditugu, kutsu historiko eta etniko gutxiagorekin, orain arte euskaratik urrunago zeuden sektore batzuetara heltzeko”

Zer egin beharko genuke euskararen egoera alor sozioekonomikoan hobetzeko?

Administrazioak, enpresariak, langileak, sindikatuak, kooperatibek norabide berean joan behar dute hizkuntzaren normalizazioan eta euskararen erabileraren aldeko urrats praktikoak eman. Hainbat enpresatan plangin-

tzak ari dira garatzen, etiketekin eta saltoki erraldoiekin legedia aldetik aurrerapauso batzuk eman dira, baina euskararen eskaera handitzen joan beharra dago eta kontsumitzaileen hizkuntza eskubideen bermeari begira aurrerapausoak eman behar dira.

Enpresarean ekimena ondo bideratuta dago?

Zentzu osoa dauka, oso zaila delako enpresa bakoitzak bere aldetik laguntzarik gabe horrelako ekinbide bati heltzea. Horrelakorik gabe nekez aurreratuko genukeen orain arte egin duguna.

Zer deritzozu euskararen inguruan lantzen den diskurtsoa, tonua?

Baldintza soziopolitikoak eta ekonomikoak ez dira lehengoak, eta gure

diskurtsoak ere aldatu behar dira. Diskurtso aglutinatzaileagoak behar ditugu, kutsu historiko eta etniko gutxiagorekin, giza sektore gehiagok onartu ditzakeenak, orain arte euskaratik urrunago zeuden sektore batzuetara heltzeko. Askotan tonu ilunegia dute eta diskurtso baikorragoak erabil ditzakegu. Zer falta den, zerk egin duen huts, nora ez garen heldu ezin dugu ahaztu, baina nabarmendu eta ospatu behar dugu lortutakoa. Era berean, ezinbestekoa da gure herriko ohiko bitasun horrekin apurto eta praktika adostuagoak bermatzea.

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkar-tearen diskurtsoak badu zer hobetut?

Bere kontzeptu eta diskurtsoarekin bat nator. Baina, euskalgintzaren alor guztietan bezala, jauzi kualitatiboa maila guztietako erakundeen eta euskalgintzaren lankidetzaren sendotu eta bikoiztasunak gainditzetik etorriko da.

Etorkizunera begira amets egin...

Seguratzeara ume guztiek euskara jakingo dutela. Aukera sendoak ditugu oinarritzko adostasun sozialetara heltzeko, euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatzeko eta euskara erabiltzeko esparruak eta baldintzak sortzeko. Ezinbestekoa da gizartearen inplikazio positiboa eta aktiboa. Gakoa da euskara ikasi duten eta familia erdaldunetatik datozen gazte horiek zer hizkuntza erabiliko duten etxean eta zer transmitituko dieten seme-alabei; eta euskara dakitenek zer nolako erabilera egingo duten ●

libbuk
elkar

2



elkarlibbuk.elkar.com
www.elkar.com



BERTSIO BERRITUA





Kepa Mendia (Mendia Optika)

“Bezera hasten bada zerbitzua euskaraz eskatzen eta euskaraz erosten, erdaldunak horren garrantziaz ohartuko dira”

Mendia Optika Argantzunen jaio zen. Negozioa XIX. mendearen bukaeratik Gasteizko bihotzean kokatuta dago eta Arabako euskal komunitatean erreferente da euskarazko iragarkiak egin izanagatik eta arlo guztietan euskara bultzatzeagatik.

Lehenik eta behin, zorionak! Zer suposatzen du sari hau jasotzeak?

Poza, eta aurrera jarraitzeko bultzada eta akuilua ere bai, ardura pixka bat.

Bidean maila eskuratu duzue. Iru-dikatzen duzue besterik eskuratzear?

Zerbitzua euskaraz eskaintzearena lortzeko bidean gaude, baina lan guztia euskaraz egitea urrun ikusten dut. Hala ere, pausoak ematen gabiltza: bi lankide euskaldun kontratatu berri ditugu; webgunea bietara daukagu, euskaraz eta gaztelaniaz...

Urteetan ia basamortuan aritzeak Gasteizen euskal komunitatearen erreferente izatera eraman zaituzte. Nola hasi zineten?

Aita euskalduna ez, baina euskaltzalea zen. Ni euskaldundu nintzenean euskaldun batekin ezkondu nintzen, eta familian beti euskaraz egin dugu. Euskaltzale sutsu eta gaztea nintzen eta lanean ere euskaraz egin nahi nuen. Horregatik, hasi nintzen ingurukoak euskalduntzen. Eta, nahiz eta

giro erdalduna nagusi izan, ez genuen kontrako jarrerarik izan.

Gasteizko komunitate erdaldunak aldatu ditu euskaldunak behatzeko begiak? Inbidia sana daukate?

Jendeari galdetuz gero, erdaldunei ere bai, euskararen aldeko jarrera nabarmetzen da. Alde horretatik, zailtasunik ez dago. Euskaldunekiko miresmena eta inbidia sana badago. Giroa ez dugu kontra. Guri dagokigu alde gogor egitea.

Eta asko aldatu da euskararen egoera Gasteizen?

Bai, aldatu da nabarmen. Euskaldunak askoz gehiago dira, euskara entzuten da askoz gehiago, baina kezka apur bat dut. Esango nuke gogoia edo militantzia apur bat moteldu dela.

Gasteizko merkatariek jakitun dira bezero euskaldunentzat hizkuntzak duen garrantziaz? Fidelitasuna lantzen da...

Esperientziak esaten digu publizitatean eta zerbitzuak ematerakoan euskara erabiliz gero, emaitzak beste-

“Gasteizen euskaldunak askoz gehiago dira orain, euskara entzuten da askoz gehiago, baina esango nuke gogoia edo militantzia apur bat moteldu dela”

lakoak direla. Baina erdaldunek ez diote oraindik horri begiratzeko. Horregatik, gerora oso inportantea izango da bezero euskaldunaren jarrera. Hasten bada zerbitzua euskaraz eskatzen eta euskaraz erosten, erdaldunak horren garrantziaz ohartuko dira.

Nola irudikatzen duzu euskararen etorkizuna Gasteizen?

Euskal Herria euskalduna benetan nahi badugu joera zintzoagoa behar dugu, guri dagokigu. Euskara gehiago erabili beharko genuke eta joera irmoarekin. Anje Duhaldek abesten duen gisan, *Maita nazazu gutxiago eta goza nazazu gehiago* ●

Petra Elser (Banaiz Bagara)

“Euskarara kanpotik zein eremu erdaldunetik hurbildutakoa, hartzailea izateaz gain, emailea ere izatea nahi dugu”

Banaiz Bagara elkarte 2009an sortu zen Urnietan, kanpotik etorritakoei zein erdal munduan bizi direnei euskara ikasteko bidea eman eta euskaraz bizitzeko aukerak areagotzeko. Gaur egun hamar herritan daude eta komunitate aberatsa osatzea lortu dute.

“Gure eskaintza kale-saltzaileari zein unibertsitateko ikasketak dituenari egokitu behar zaie”.

Zorionak! Zer da zuentzat sari hau jasotzea?

Onarpen handia, batez ere lan alorrean egiten ari garen ahalegina saritzen duelako. Ikustarazi nahi dugu euskara bizitzeko hizkuntza dela eta, hortaz, lanean ere beharrezkoa dela.

Zeintzuk dira zuen proiektu kuttunenak?

Lantokiko praktikan oinarrituta daude eta komunikazio erreala eta konpetentzia profesionalak hartzen dituzte kontuan. Lan sektoreetarako NEL (Nik ere Euskaraz Lanean) ikastaroak eta gaztelaniazko prestakuntzetan txertatutako lau orduko euskara modulu laburrak dira. Iaz Europako Kontseiluko *Language for Work* proiektua ezagutu genuen, migratzaileek lanean bertako hizkuntza ikasteko, eta guztiz islatuta ikusi genuen gure burua. Erronka da metodologia horiek gure beharretara egokitzea eta esperientziak partekatzeta.

Bidean maila lortu duzue. Beste pausorik?

Bidean lortu dugu gure bazkideak bide horretan daudelako. Gure salmahaitan kideak euskaraz aritzen dira, nahiz eta maila baxua izan. Bestela, lantaldea jatorrizko eta beste herrialde batzuetatik etorritako euskaldunek osatzen dute. Lan bilerak euskaraz egiten ditugu, dinamizatzaileak gurekin ikasitakoak dira... Euskarara hurbildutakoa emailea ere izatea nahi dugu.

Zeintzuk dira etorkizuneko erronka eta estrategiak?

Gure esperientziatik abiatuta, metodologiaren berrikuntzan jarraitzea. Egitura operatiboagoa lortu eskaera guztiei behar bezalako erantzuna emateko. Dinamizatzaileak ondo formatu, berrikuntzaren jarrera irekia landu eta benetako emaitzen bila jardun, beti ere jatorria eta hasierako helburuak ahaztu gabe. Egitasmo soziala da gurea elkarbizitzan eta aukera berdintasunean oinarritutakoa. Gure eskaintza kale-saltzaileari zein unibertsitateko ikasketak dituenari egokitu behar zaie.

Zer egin daiteke era koordinatuan euskarak etorkinen artean ere bere egoera sendotzeko?

Euskarazko prestakuntza modu arau-

tuan eskaini HHIn (Helduen Heziketa Iraunkorra), prestakuntza okupazionalan, Lanbide Heziketan... Eta, bestetik, ohartzea euskara ikasteak balio duela euskaldunok pertsona horiekin euskaraz egiten badugu. Biak dira ezinbestekoak ●





Banaiz Bagara elkarteak, Gasteizko Mendia Optika eta Kike Amonarriz saritu ditu Bai Euskarari Ziurtagiriak

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak urteroko Ekitaldi Nagusia egin zuen urriaren 3an Donostiako Basque Culinary Centerren, ziurtagiridunak eta enpresa ezberdinetako ordezkariak bertan zirela.

Ekitaldiko
laburpen-bideoa





Erakundeen presentzia ere izan zen ekitaldian. Hala nola, bertan izan ziren **Jorge Gimenez** Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Ikerketa eta Koordinazio zuzendaria; **Jokin Larrañaga** Arabako Foru Aldundiko Euskara Zerbitzuburua; **Zigor Etxeburua** Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara zuzendaria; **Juan Karlos Izagirre** Donostiako alkatea; eta **Nerea Txapartegi** Euskara zinegotzia.

Aurtengo Bai Euskarari Sariak banatzeaz gain, Ziurtagiriaren Elkarteak 2013an zehar egindako Hausnarketa Estrategikoaren emaitza izan diren irudi eta web-gune berriak ere aurkeztu ziren jendaurrean.

Saridunak

Bai Euskarari Sarien helburua da arlo sozioekonomikoan euskararen alde ziurtagiridunek egiten duten lana aitortzea. Aurtan, **Banaiz Bagara** elkarteak eta **Mendia Optikak** jaso dute aitortpen hori.

Banaiz Bagara elkarteak lan munduari dagozkion egitasmoen bidez eta kultura, kirola eta hizkuntza transmisioen bidez euskararen eremuan herritarren elkar ezagutzea sustatu zein gizartearen barne kohesioa eta aukera berdintasunaren alde egiten du lan. Ziurtagiriaren Elkarteak lan hori guztia aitortu nahi izan die sari honekin.

Gasteizko Mendia Optikan euskararen aldeko apustua egin izan dute beti, bai bezeroekiko harremanean, baita kanpoko komunikazioan ere. Euskaraz aritu nahi duten negozioentzat erreferente izan dira eta hori aitortu nahi izan dio Ziurtagiriaren Elkarteak.

Kike Amonarrizek jaso du aurtan Bai Euskarari Laguna Saria. Amonarriz soziolinguista, umorista eta telebista-aurkezlea da. Gizartean modu naturalean euskara sustatzearan alde egindako lana saritu nahi izan dio Ziurtagiriaren Elkarteak ●



www.enpresarean.org

 /enpresarean

 @enpresarean



Enpresa eta profesional sarea, euskaraz

- Enpresa munduko albisteak
- Elkarlanerako komunitatea
- Azokari buruzko informazioa
- ...



Ziurtagiriaren Elkarteak

Lan eta bizi euskaraz

Irudia eta webgunea berritu ditu elkarteak

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak 2013an egin zuen datozen urteetarako Hausnarketa Estrategikoa eta bertan adostu zen elkarteak arlo sozioekonomikoaren euskalduntzean eragitea duela helburu. Horrekin batera, elkartearen irudia berritzearen beharra ere jasotzen zen hausnarketan, arlo sozioekonomikoan eragiteko irudia egokitzeko beharra, hain zuzen ere.

Hala, Bai Euskarariren urteotako nortasuna zeharo galdu gabe, irudia berritu egin dugu, tipografiari garrantzi handiagoa emanez.

Ziurtagiriaren Elkartearen logoan ez da agian aldaketa asko nabarmenduko: atzea beltza da, hizki laranja eta zuriekin. Baina, ziurtagiriak logo nagusiarekiko ezberdindu egin nahi izan dira; orain laranja da, letra zuriekin.



Irudi berriaren
bideoa



Ziurtagiriaren Elkartea

Ziurtagiriak



euskararen
bidean



zerbitzua
euskaraz



zerbitzua eta
lana euskaraz

bidera
zerbitzuak

Banaketa-Komunikazioa
Itzulpenak-Aholkularitza
Publizitatea-Dei zentroa



berria
taldea



Webgune berria, .eus domeinuarekin

Webgunea ere berritu du Ziurtagiriaren Elkartek. Aro berrira egokitzeko, webgune dinamikoa eta pantaila ezberdinetara egokitutakoa egin du, *responsive* diseinuarekin.

Webguneko edukiari ere garrantzia eman nahi izan zaio. Elkarteko proiektu ezberdinek (Ziurtagiria, Enpresarean, Lansarean...) aparteko lekua dute orain eta ziurtagiridunen komunitatea indartu nahi da atal bereziarekin.

Bestalde, ekainaren bukaeratik .eus domeinuaren aitzindarietako bat da Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarte. Harrezkero Baieuskarari.eus da elkartearen webgunearen helbidea eta aurrerago, .eus-en fase irekia zabaltzen denean, gainerako proiektuetako webguneek ere .eus domeinua izango dute.



Webgune berritua aurkezteko bideoa

emun
EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA

Euskara eta hizkuntzen kudeaketa, kultura, aniztasun zein parte hartze gaietan kalitatezko aholkularitza

ARRASATE | ANDOAIN | BERRIOZAR | DERIO

www.emun.com

**HIZKUNTZA
ZERBITZUAK**

**KULTURA
ZERBITZUAK**

**ANIZTASUN ETA IMMIGRAZIO
ZERBITZUAK**

**PARTE HARTZE
ZERBITZUAK**



Euskal Herriko enpresen etorkizuneko erronkak hizpide, aurtengo Enpresarean azokan

Urriaren 23an egingo da Enpresarean azokaren bigarren edizioa Donostiako Kursaal. Enpresen eta profesionalen artean elkarlana sustatzeko, negozio aukerak handitzeko eta salmentarako gunea da Enpresarean.

Rober Gutiérrez Ziurtagiriaren Elkarteko zuzendariak azokaren aurkezpenean esan zuenez, "elkarlana beharrezkoa da enpresa munduan, proiektuak elkarrekin aurrera ateratzeko, aliantzak sortzeko... eta horretarako, oso aberasgarria izaten da enpresek eta profesionalak elkar ezagutzea. Horri begira sortu zen Enpresarean proiektua eta bi urtean behingo azokarekin elkarlan hori sustatu nahi da, Euskal Herriko enpresek eta pertsonak etorkizun oparoagoa izan dezaten".

Rober Gutiérrezen esanetan, Ziurtagiriaren Elkartaren helburu nagusia "alor sozioekonomikoaren euskalduntzean eragitea" da, "gure egunerokoan eragina duten espazio guztietan euskarari lekua egitea estrategikoa baita. Proiektu honekin, zuzenean ari gara eragiten enpresaren eremuan euskararen presentzia gero eta handiagoa izan dadin".

Euskararentzat garrantzitsua

Juan Karlos Izagirre Donostiako alkatea ere izan zen azokaren aurkezpenprentsurrekoan. Izagirrek esan zuen oso pozik daudela ekimen hau Donostian egiten delako eta "euskararentzat



ekimen garrantzitsua eta beharrezkoa" dela, baita Donostiarentzat ere.

Horren harira, hiriarentzat garrantzitsua dela azpimarratu zuen "Donostia euskararen hiria" delako eta "Donostia euskalduntzeko" apustua egin dute. Hori administratibotik bakarrik ez dutela egingo esan du Izagirrek: herritarrek, administrazioa eta gizarteak eragile guztiak behar direla aipatu zuen, baita enpresak ere.

Enpresa asko bidegile

Zigor Etxeburua, Foru Aldundiko Euskaraz zuzendariaren esanetan, "GFaren hizkuntza politikaren ildo nagusia da euskaraz bizitzea, eta bereziki, euskaldunoi euskaraz erabiltzeko aukerak eskaintzea. Bide horretan, alor sozioekonomikoaren euskalduntzea eragin nahi du Aldundiak".

Gipuzkoako Foru Aldundiak lau hitzetan biltzen duen jardura garatzen

duela azpimarratu zuen Etxeburuak: arautu, praktikatuz, lagundu eta sustatu. Hain zuzen ere, sustapenaren atalaren baitan abiatu zuten, duela bi urte, lankidetzaren harreman bat Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartarekin, euskarazko zerbitzua eskaintzen duten enpresen azoka antolatzeko.

Etxeburuaren hitzetan, "Gipuzkoako eta Euskal Herriko enpresa asko bidegileak dira euskara beren ohiko funtzionamenduan txertatzen. Enpresa ugari, dagoeneko, eskaintzen dituzte beren zerbitzuak euskaraz, gizartean dagoen eskariaren aurrean arduratsu, eta euskarak eskaintzen dituen aukerekin erne".



Gipuzkoako Foru Aldundia



Donostiako Udaleko
Ayuntamiento de San Sebastián
Euskara Zerbitzua



LABORAL
kutxa



enpresarean

enpresarean

urriak 23

● **8:30-9:00**

Harrera eta dokumentazio-banaketa

● **9:00-9:15**

Aurkezpen instituzionala

● **9:15-10:15**

SOLASALDIA: 'EUSKAL HERRIKO ENPRESEN ETORKIZUNENKOKO ERRONKAK'

Parte-hartzaileak:

- Imanol Esnaola. Gaindegiaiko koordinatzaile eta idazkaria (moderatzailea).
- Josu Arraiza. Laboral Kutxako Enpresa arloko zuzendaria.
- Ainara Basurko. Lea Artibaiko Garapen Agentziako gerentea eta Azaro Fundazioko Zuzendaria.
- M. Claire Sallaberry. Herrikoako Zuzendari Nagusia eta enpresaburua.
- Xabier de la Maza. ADEGiren Ekintzaileen Foroko kidea, Lasalsera.net

● **10:15-11:00**

MAHAI-INGURUA: 'KOMERTZIO ELEKTRONIKO: BEZERO BERRIAK, SAREAREN BITARTEZ'.

Parte-hartzaileak:

- Jabi Asurmendi. Bitarlaneko sortzailea eta irakaslea (moderatzailea).
- Gari Araolaza. Codesyntaxeko informatikaria.
- Iruri Knörr. Nolatan, Ideateka, Ludei.
- Arkaitz Sukuntza. Ttalaia Elkarteko kidea eta Euskontu proiektuko sortzailea.
- Mikel Aranburu. Euskal Herriko plazako kidea.

● **11:05-11:25**

Arin-arin. Negozioen aurkezpen laburrak.

● **11:25-11:40**

Berrikuntzak. Negozio-eredu berriak. 3D inprimagailu tailerra, Hirudiren eskutik.

● **11:40-12:15**

Kafea + Elkarlana + Fotokola

● **12:15-12:35**

DONOSTIA SUSTAPENA: 'EKONOMIA ETA GIZARTEAREN GARAPENA. NOLA/ ZERTAN LAGUNDU AHAL ZAIE EKINTZAILEEI/ ENPRESEI?'

Hizlaria:

- Ainhoa Aldasoro. Berrikuntza saileko ardura-duna, Donostia Sustapena.

● **12:35-13:10**

Arin-arin. Negozioen aurkezpen laburrak.

● **13:10-13:30**

ESPERIENTZIA ARRAKASTATSUAK: 'NAZIOARTEAN KOKATUTAKO ENPRESAK DIRA KRISIARI AURRE EGITEKO ONDOEN DAUDENAK'

Parte-hartzaileak:

- Aner Garmendia. Egamaster-eko Zuzendari Orokorra.

● **13:30-14:15**

SOLASALDIA: 'FORMAZIOA: ETORKIZUNENKOKO ERRONKAK'

Parte-hartzaileak:

- Ederne Bilbao. IMH institutuko komunikazio arduraduna. Euskararen erabilera sustatzeko Goazen proiektuko koordinatzailea (moderatzailea).
- Julen Elgeta. Heteleko presidentea.
- Roberto San Salvador, Komunikazioko, Eleaniztasuneko eta Gizarte Berrikuntzako errektoreordea, Deusto
- Jon Altuna. MUko Errektoreordea.
- Agustin Erkizia. EHUko Gipuzkoako Campuseko Kanpo Harremanetarako Zuzendaria.

● **14:15**

Elkarlanerako bazkia

Lankidetza hitzarmenak udaletan, arlo sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiteko



Zarautz

Zarautzen hitzarmena berritu dugu

Zarauzko Udalak eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartek lankidetza hitzarmena berritu zuten urriaren hasieran Zarauzko udaletxean. Juan Luis Illarramendi alkateak eta Rober Gutiérrez Ziurtagiriaren Elkarteko zuzendariak sinatu zuten arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko akordioa. 2005ean sinatu zen hitzarmena lehen aldiz eta harrezkero urtero berritu izan da.

Hitzarmenean jasotzen denez, Udalak 5.547,85 euro bideratuko ditu udalerrian Ziurtagiria hedatzeko.

Gaur egun, 41 ziurtagiridun daude Zarautzen: hiruk dute Zerbitzua eta Lana Euskaraz ziurtagiria; 27k Zerbitzua Euskaraz ziurtagiria; eta 11k Bidean ziurtagiria.

**Ziurtagiriaren
Elkarteak lankidetzaz
hitzarmenak ditu
Euskal Herriko udal,
mankomunitate edo
aldundi ezberdinekin,
erakundeen indar eta
ahaleginen sinergiak
batu eta arlo
sozioekonomikoan
euskararen erabilera
areagotzen
jarraitzeko.**



Erreteria

Erreteria Udalarekin lankidetzaz hitzarmena sinatu genuen joan den maiatzean eta hitzarmenak eman ditu dagoeneko lehenengo fruituak: Erreteria 24 negoziok eskuratu baitute Bai Euskarari Ziurtagiria. Ziurtagiriaren Elkartarekin elkarlanean, sustapen kanpainan parte hartu dute Erreteria Udalak, Lau Haizetara Euskara Elkartek eta Errenkoalde Merkataritza Elkartek.

Udalerri gehiagotan

Euskal Herriko beste udal batzuekin ere baditugu hitzarmenak: Lau-dio, Gernika-Lumo, Gasteiz, Amurrio, Azpeitia, etab. Horien ondorioz, zenbait diru laguntza eskura ditzake-te bertako ziurtagiridunek.

Tresna baliagarria

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartek herriz herri egindako hitzarmenak oso tresna baliagarriak dira:

1. Udalerrietako alor sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiteko.
2. Herrietako establezimenduetan, bezeroei kontsumo-harremanak euskaraz izateko aukerak emateko.
3. Herrietan euskararen presentzia nabarmen handitzen laguntzeko.

LANsarean
bilalan

www.lansarean.org

 @lansarean



Enpresa eta profesional euskaldunak
harremanetan jartzeko **webgunea**

- Lan bila zabilta?
- Lana eskaintzen duzu?



Ziurtagiriaren
Elkartea

Lan eta bizi euskaraz



Lan eta bizi euskaraz

Ziurtagiriaren
Elkartea

Webgune berritua

- Bai Euskarari komunitatea
- Gure proiektuen inguruko informazioa
- Baliabideak (diru-laguntzak, hiztegiak, formazioa...)
- Albisteak
- ... eta gehiago

